

## LURRAREN ONTASUNA

Lurrak landu-alan, ale onak emoten ditu. Izan bere, ortarako dira soloak, landuak izateko ta gizadiari janariak sortzeko. Gizonak lan egiten dau ba, ta izadiaren Jaubeak lurra ta gizonaren izerdiak bedeinkatu egiten ditu.

Alderdi biok dira bear-bearrezkoak. Alan autortu eben antxina, lur langilleak, zeru ta lurretara begiratuz, masuagaz luna jo bear dau ta biotzagaz otoi, masukada orrek frutu onekoak izan daitezen.

Baserritar zentzudunen burua, beti, bide orretatik ibili zan. Baserri lugiñak ondo ekien lana, euria ta eguzkia, sasoi, onean bear zirela. Lana berak egingo eban, baña curia ta eguzkia ez egozan gizonaren eskuetan.

Lurrak landu, jorratu ta ondu ondoren, zenbat bider gure arbasoak, txapela kendu ta eskaria egiten eutsoen eguzkiaren Jaubeari laguntasuna eskatzen.

Jokabide au biziak eskatzen dau. Gure almen ta nai izatez goitik dago gari ale batetik galburu eder ta ugari bat sortzea ta arta-garau batetik artaburu urrezkoa sortzea.

Zelako gari solo ederrak ta zelako artotza bizigarriak ezagutu izan genduzan, antxina ez dala. lengo aldian. Txapela kendu ta agurtzeko erakoak ziran. Egiz, ikusten ziran gizonaren eskua ta Egillearen bedeinkapena. Biak ondo alkai artuta ebiltzazan.

Gizonaren sinismena, lana ta izerdia, abegi onez, artzen zituan biziaren Jaunak ta giza seme-alabak be sarri gogoratzen ziran beragaz, laguntasuna askatzeko ta eskerrak emoteko. Artu-emonean egozen beti, lurraren ugazaba ta morroia, ta era orretan, lurreko langilleak barruko bake ta poz geiagoz bizi ziran.

Barruko poza ta kanpotik agertzen dan poza, sarri ez dira bardiñak. Barruko pozak bakea ta atsedan ederra beragaz daroaz ta azaleko pozak bere jotak daukaz. Etxetik urtekeran arpegi baltzizkea agertzen dau ta jende

artera sartu ondoren, pozaren iturria dala dirudi. Nork ete dauka errazoia.

Gari solo ederrak, arto sail nagusiak ta patata soloak lorán, baserritarren ametsa ta bazkaria ziran. Lurra oparota zan ta gauza ederrak emoten ebazan gizadiaren onerako. Baiña baserriko lanak ezin dau gizona asetu ta emakumea gitxiago. Begiratu lau alderdietatik gizarteko bizitzari ta ezin dabe aztu giza-semea ez baserriak, ez burdinlantegiak ta ez itxasoak.

Persona batek bakarrik orreik guztiok baiño geiago balio dau, lagunaren izatea, askoz, gorago dago. Adimena, borondatea, maitasuna ezin bardindu leitekez ez burdiñagaz, ez zidarragaz, ez urregaz. Gizonaren lan ta jakituri barik, lurpean, erdi-illik egongo litzakez.

Antxina, gizon jakintsu ta santu batek Jaungoikoari esan eutsan: "Nire biotza artega dago zuregan atsedendu arte".

Geuk be Agustin santuagaz batera, bardin, diñogu: Ez dogu aurkitu gaur arte, gure barruko atsedan osoa, ez janarietan, ez arte-lanetan... Jaungoikoak esan eban: "neure irudira egin dagidan giza semea". Guk daukagun titulurik aundiena auxe da: Munduaren Egille berberaren antzekoak izatea.

Jaungoikoaren irudi eder ori, emengo gauzak ezin leikie ba, goitik eta berañño poztu. Gure adimen eta naimenaren askatasunezko bizitza ori, bizia sortu dauanak bakar bakarrik, asetu leike.

Lurra bear dogu, lurpean ipini ginduzan da, lurreko gauzak bear ditugu, aren bidez gure bizitza jorratu bear dogu-ta. Ta orren bidez nai dau gu zurtu ta beregana eltzea, ta beragan zoriontsuak izatea, gure barruak eskatzen dauskun eran.

**PAULIN**

### ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (amazortzi euro) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagoi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 € Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**